

Kultura

Sermond's-ek disko berria aurkeztuko du gaur, Elorrioko Errekakaleko jaietan > 11



Durangaldeko gazteak lehia teknologikoan garaile

Mondragon Unibertsitateko Robotek taldea osatzen duten hamabi lagunetatik lau Durangaldekoak dira. Europako FTC txapelketa irabazi ondoren, ilusioz beteta doaz Munduko Txapelketara. > 18



Hamabost eragilek bat egin dute Euskaraz Bizi Egunagaz Durangon > 2

Apirilaren 13rako antolatu dute egun osoko egitaraua, Agoitzen

“Ez gara espaloitik jaitziko, Durangon ere euskaraz bizi!” izenburupean babestu dute Durangoko hamabost eragilek Euskal Herrian Euskarazek antolatzen duen Euskaraz Bizi Eguna. Euskaraz bizitzeko gonbita luzatu dute euskalgintzako hainbat elkarrekin, sindikatuk, ikastetxeek eta gazte taldek, besteak beste. Apirilaren 13an Agoitzen ospatuko duten jaira joateko autobusak Durangon Madalenako geltokitik irtengo dira, goizeko 9:30ean.



urtiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJU, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA, HORMIGOI,
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Solaguren kalea 3
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
E-mail: urtiaga.sl@terra.es
MATIENA
ABADIÑO



Durangaldea > 2

Zaindu programa webgune baten bidez zabalduko dute

Zaldibar > 2

Nafarroako Rural Kutxak salduko ditu tasatutako etxeak

Elorrio > 6

Elorrio helmuga turistiko moduan sendotzen dabil

Berriz > 7

Belaunaldien arteko ibilbideen lehen irteera apirilaren 14an

Herririk herri

> DURANGALDEA

Zaindu programa webgune batean zabalduko dute

‘www.zaindu.eu’ webgunean zaintzaileentzako informazioa eskegitzea da helburua

> MARKEL ONAINDIA

Durangoko Udalak eta Durangaldeko Amankomunazgoak *www.zaindu.eu* webgune berria aurkeztu dute, mendekotasuna daukaten nagusien zaintzaileei informazioa emateko helburuz. Erakunde bi horietako nagusien sailek 1997an ipini zuten martxan Zaindu programa, eta hori zabaltzeko erabili gura dute webgunea, Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentek azaldu duenez. Goiztidi Diaz Durangoko Gizarte Ekintzako zinegotziak esan du, zaintzaileei beste tresna bat ematea dela euren helburua.

Amaia Artola teknikariak adierazi du, 2013rako ekintza ugari antolatu dituztela Zaindu programaren barruan, eta horien inguruko informazioa eskuragarri egongo dela webgunean. Esaterako, antsietate uneak zelan kontrolatu aztertzeko ikastaroa. “Antsietate egoerak dira kezka handiena zaintzaileentzat”, esan du Artolak. Lepoa zaintzeko ikastaro bat ere eskainiko dute. “Zaintzaileen tentsioak lepoan islatzen dira”, Artolaren arabera. Erlaxazioa eta aisialdia (irteera kulturalak) ere eskainiko dituzte. Ekintza horietan parte hartu ahal izateko, Amankomunazgoak etxerik etxeko zerbitzu bat eskainiko du, zaintzailea kanpoan denean mendeko pertsona zaintzeko.



Oskar Zarrabeitia eta Goiztidi Diaz, webgunearen aurkezpenaren.

teko, Amankomunazgoak etxerik etxeko zerbitzu bat eskainiko du, zaintzailea kanpoan denean mendeko pertsona zaintzeko.

Zaintzailearen ezaugarriak

Artolak 2012ko hainbat datu eman ditu: zaintzaileen %79 andrak dira, 57 urte ingurukoak

gehienak. %46 etxekoandreak dira, %39k kanpoan egiten dute lan eta %14 lan barik daude.

Zaintzaileek formakuntza saioak eskatzen dituzte batez ere, aisialdirako zein beste helburu batzuetarako ekintzak ere antolatzen dituzten arren. Besteak beste, zaintzaileek euren ar-

tean kezkak konpartitzeko mintegi bat aipatu du Artolak. Bertan, gizonak ere parte hartu izan dutela adierazi du: “Gizonek euren emazteak zaintzen dituzte bat-batean, eta egoera ez da erraza”. Iaz, guztira, 217 lagunek parte hartu zuten formakuntza saioetan.

> ZALDIBAR

Nafarroako Rural Kutxak salduko ditu tasatutako 17 etxebizitzak

Martxoko udalbatzarrean erabaki zuten udalak prezio tasatuko etxebizitzak erosketari uko egitea; aho batez hartu zuen Zaldibarko Udalak erabakia

> ITSASO ESTEBAN

Aho batez onartu zuten martxoko ohiko bilkuran udalak prezio tasatuko etxebizitzak erosketari uko egitea. Izan ere, erakunde publikoek dute etxebizitza horiek eskuratzeko lehentasuna. Jose Andres Urizar Hirigintzako zinegotziak azaldu duenez, eskola ondoko

prezio tasatuko 17 etxebizitza dira oraindik saldu barik daudenak, eta Nafarroako Rural Kutxak egingo du salmenta.

Urizarrek azpimarratu duenez, baina, “eskatzaileek orain arte bezala bete beharko dituzte etxebizitza tasatuen ordenantzen baldintzak”. Besteak beste, ezingo dute gaindi-

tu ordenantzak zehazten duen urteko errenta.

Logela bat, bi eta hiruko etxebizitzak dira Kurutzezar kaleko hauek: 105.000 eta 180.000 euro bitartekoak.

Etxebizitzetako bat eskuratu gura dutenek udalean egin beharko dituzte, orain arte bezala, euren eskariak.



Prezio tasatuko 17 etxebizitza dauzka Nafarroako Rural Kutxak salgai.

> OTXANDIO

Udaberri Jaia biziberritu gura dute elkarteek laguntzagaz

> JOSEBA DERTEANO

Apirilaren 20an Udaberri Jaia ospatuko dute Otxandion. Sasoi batean indar handiko jaiak izan arren, azken urteetan beherakada izan dute. Horregatik, aurten herriko elkarte eta eragileen inplikazioa bilatu dute antolatzaileek: “Herrian elkarte asko daude, eta denon laguntzagaz eta denon artean jaiak biziberritzen saiatu gura dugu”, adierazi du Oihane Sanchez antolatzaileetako batek.

Urduri dantza taldeagaz, Iluntxo pilota eskolagaz, Vulcanoko futbol taldeagaz eta gurasoen elkarteagaz batu dira, eta Sanchezek adierazi duenez, den-denok erakutsi dute laguntzeko prestutasuna. Apurka-apurka egitaraua osatzen dabiltza, eta datozen egunetan zehaztuko dute programazio osoa.

Edozelan ere, dagoeneko badituzte erabakita egun horretarako musika kontzertuak. Apirilaren 20ko iluntzean, Sermond's, Indarrap eta Luhartz taldeen musikak girotuko du Udaberri Jaia.

> MALLABIA

Parot doktrinaren aurkako mozioa onartu dute

> JONE GUENETXEA

Mallabiko Udalak aho batez onartu du Parot doktrinaren aurkako mozioa azken udalbatzarrean. Onartutako testuak azaltzen duenez, 2012ko uztailaren 12an, Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalak Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren 197/2006 doktri-

“Salbuespeneko legeria bertan behera uzteko eskatzen du udal honek”

na (Parot doktrina) aho batez ez legezkoa eta oinarritzeko eskubideen aurkakoa dela ebatzi ondoren, berori bertan behera uzteko eskatzen du udalak. Ondorioz, doktrina hori aplikatu zaien presoak “berehalakoan” aske uzteko eskatzen dute. Testuak dioenez, “Euskal Herrian bizi dugun itxaropen eta konponbide aukeraren aurrean, euskal presoaren aurkako albuespeneko legeria bertan behera uzteko eskatzen dugu”.

> DURANGO

Poliklinika zabalik, karmeldarren konbentu zaharrean

Zentro pribatuan erresonantzia zerbitzuak ematen dituzte momentuz; aste pare bat barru, mediku-errehabilitazioa eskaintzen hasiko dira

> MARKEL ONAINDIA

Intxaurrendoko karmeldarren konbentu zaharra poliklinika izango da aurrerantzean. Mojek 2007an utzi zuten eraikina, eta udalak 2010ean aldatu zituen lur-zoruaren arauak osasun zentroa sortu ahal izateko. Eraikinean obrak egin eta gero, dagoeneko zabalduta dute zentro pribatu be-

Urienen arabera, osasun zentro eta ospitalearen erdibideko zentroa izango da poliklinika

rria. Momentuz erresonantzia zerbitzuak ematen hasi dira, eta pausoak astiro-astiro emango dituztela esan du Noah Urienek, poliklinikaren jabeak. Aste pare bat barru, mediku-errehabilitazioa eskaintzen hasiko dira. Gero, dialisia, kolonoskopiak, laser bidez barizeak kentzea...

Urienen arabera, osasun zentro eta ospitalearen erdibideko zentroa izango da poliklinika. Orain arte, hainbat zerbitzutan hutsuneak egon direla uste du, eta horiek betetzeko asmoa daukate. Hurrekoa izatea gura dute, geografikoki zein tratuari begira. "Batziek urtean 156 bider joan behar izaten dute gutxienez Bilbora, Donostiara edota Gasteizera". Durangaldeko, Debabarreneko eta Debagoieneko biztanleei zuzendutako zentroa izango da, eta normalean egiten dituzten bidaia horiek saihestea lortu gura dute. Bestalde, Urienen ustez, herritar asko "galduta" egoten da arazo bat sortzen zaionean eta, horienganako tratuak ere arduratzen diela dio. Formazioa eskainiko dute zentro berrian; esaterako, erditu erreko eta osteko egoeren ingurukoa.

Sektore publikora begira
Poliklinika pribatua da, baina sektore publikoagaz ere egin gura dute lan. Inguru honetan es-

kaini ahal duena ikusita, Jaurialritzagaz hartu-emanetan dabil Urien, hitzarmenak lortu guran.

Euren eskaintza kalitatean oinarritzea gura dute. Esaterako, dialisi peritoneala sustatu gura dute, beste ereduakin aldekatuta abantaila asko ei daukatalako. Datozen asteetan emango dute hurrengo pausoen berri.



Poliklinikaren kanpoko irudia goian, eta martxan dagoen erresonantzia gelarena behean.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA



Lanerako Gertu!

Ate Irekien Jardunaldiak

Apirilak 10 18:00

Maiatzak 25 11:00

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2013-2014

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak

www.mondragon.edu/gmh
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91



> DURANGO

Anboto astekariak ere EHeren ekimena babestu du.

Hamabost eragilek Euskaraz Bizi Egunagaz bat egin dute Durangon

“Ez gara espaloitik jaitsiko, Durangon euskaraz bizi!” leloa hartu dute goiburu

> JONE GUENETXEA

Euskal Herrian Euskarazen ekimenagaz bat egin duten hamabost eragileek euskaraz bizitzeko konpromisoa hartu dute, eta norbanako zein eragile guztiei dei egin diete “ez daitezzen espaloitik jaitsi” eta beraien moduan euskaraz bizi daitezen.

Honako eragile hauek egin dute bat EHeren egitasmoa-

gaz: Berbaro elkarte, Durangaldeko AEK, Plateruena kafe antzokia, Anboto komunikabideak, Durangoko EHE, Ibaizabal ikastola, Kurutziaga ikastola, Gerediaga elkarte, Kimuak aisialdi elkarte, Ikasle Atertzaleak, Durangoko Ernai, Zapaburu gazte konpartsa, Durangaldeko LAB, Durangaldeko ELA eta Intxaurre elkarte.

Agoitzera autobusa

Apirilaren 13an, Agoitzen egun osoko egitarauagaz ospatuko duten Euskaraz Bizi Egunera joateko autobusa Madalenako geltokitik irtengo da 9:30ean. Autobuserako izena emateko aukera dago Intxaurre elkartean eta Plateruenean. Autobus eta bazkaritarako txartelak 20 euro balio izango du.

Erosketak etxera eroateko zerbitzu berria ipini dute

> M.O.

Dendak Bai merkatarien elkarrekin zerbitzu berri bat ipini du martxan: erosketak etxera eramatea. Durangoko eta Iurretako bezeroek betiko moduan egingo dituzte erosketak, baina produktuek dendan bertan uzteko aukera edukiko dute. Fitxa bat bete, eta gero banatzaile batek etxe-

Fitxa bat bete, eta ostean banatzaile batek etxera eroango die erositakoa

ra eroango die erositakoa. Elkarrekin bazkide diren dendetan 0,50 euroko gastua edukiko du zerbitzuak; bazkide ez direnetan 5,50ekoa. Bost kiloko muga egongo da erosketak garraiatzeko.

Banaketarako, elkarrekin behargin bat hartu du, Lanbidek eta Amankomunazgoak sustatutako lan programaren barruan. Hilabete batzuren buruan, balantzea egitean, zerbitzua Durangaldeko beste herri batzuetara hedatu ala ez erabakiko dute.

Administrazio erreformaren aurka egin du udalak

Rajoyren exekutiboaren helburua gastuak murriztea da, eta hainbat neurri proposatu ditu

> M.O.

Espainiako Gobernuak tokiko administrazioen erreforma egin gura du aurten. Mariano Rajoyren exekutiboaren helburua gastuak murriztea da, eta horretarako hainbat neurri proposatu ditu: bikoizketak saihesteko eskumenak gutxitzea, soldatapeko kargudunen kopurua murriztea, 1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako alkateak ez kobratzea, udal aholkularien kopurua gutxitzea... Otsailaren 15eko ministroen kontseiluak erreformari ekitea onartu zuen, eta orain ekarpen fasean dago.

PSE-EEren iritziz, udalen eskumenak urrundu egingo dira herritarrengandik

2013a amaitu aurretik behin berriz onartuta egotea gura dute, azaldu dutenez. Durangoko udalbatzak erreforma asmo horren kontra egin zuen martxoan ohiko bilkuran, PSE-EEren ekimenez eta Bildu zein Aralarrek babestuta.

PSE-EEren iritziz, udalen eskumenak urrundu egingo dira herritarrengandik. Gainera, Aldundira pasatzean, zenbait eskumen pribatizatzeko arriskua ikusten dute, eta ondorioz, zergak igoko lirateke. 200.000 lanpostu publikotik gora galdu ahal direla ere ohartarazi dute sozialistek.

Jaurlaritzari eskaera

Mozioa onartuta, Espainiako Gobernuari erreforma erretiratzeko eskatu dio udalak. Gainera, babesa aldarrikatuta, Eusko Jaurlaritzari ere egin dio eskaera: zehaztu ditzala eskumenak Euskadiko Udalen Legea garatuta.

“Argi zeukaten kultura fusila bera baino arma beldurgarriagoa zela”

Bonbardaketaren urtemugan gerrako umeak eta zigortutako irakasleak omendu zituzten

> M.O.

Joan zen domekan bete ziren 76 urte faxistek Durango bonbardatu zutela. Gerediagak eta Kriskitinek udalaren laguntzagaz eginiko ekitaldian eraso haren biktimak izan zituzten gogoan. Gainera, gerrako umeak eta zigortutako irakasleak omendu zituzten. Eskarne Aromak egin zuen lore eskaintza, gerrako umea, irakaslea eta euskararen aldeko militantea izan zelako. Zapatuan, 75 urte bete ziren Duran-

galdean euskara debekatu zutenetik. “Gerraren irabazleek argi zeukaten kultura fusila bera baino arma beldurgarriagoa zela”, esan zuten ekitaldian. Durangaldean 33 irakasle zigortu zituzten. “Ez zen posible gizarte berriaren zutabe izango zirenak edozein maisu gorrik eskainitako ikasketen gerizpean haztea”.

Udalak gerra zibilaren biktimak oroitu zituen hilerrian, eta Iñigo Urkullu lehendakariak parte hartu zuen.



Aroma, lore eskaintza egiten, Andra Marin. Txelu Angoitia - Gerediaga

> ATXONDO

Pilota txapelketa hasiko da Herrera mugimenduak antolatuta

> J.D.

Herrera mugimenduak binakako pilota txapelketa antolatu du Atxondon. Bikoteen mailaren arabera hiru mailatan jokatu da. Domeka honetan amaitzen da izen-emateko epea Apatako tabernetan. Apuntatzerakoan bikotearen

izen-abizenak eta telefonoa utzi behar dira, eta zer mailatan jokatu gura den zehaztu behar da. Izen-emateak 10 euro balio du, eta txapelketako lehen partiduetan jasoko dituzte.

Txapelketa apirilaren 12an hasiko da, datorren barikuan. Hortik aurrera, barikuetan, zapatuetan eta domeketan jokatu dira jardunaldiak. Finalerdiak Axpeko San Juan jaietan jokatu dituzte, eta finalak, berriz, Apatako San Pedro jaietan.

> MAÑARIA

Lepoa zaintzeko ikastaroa hasiko dute jubilatuek astelehenean

> M.O.

Mañariko jubilatuen Ursula Donea elkarrekin lepoa zaintzeko ikastaroa antolatu du, eta astelehenean, apirilaren 8an, egingo dute lehenengo saioa. Arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara bitartean izango da kultur etxean. Datozen as-

teetan, beste lau saio ere egingo dituzte honako data hauekin: apirilaren 15ean, 22an eta 29an, eta maiatzaren 6an.

Egoitzako ordutegia

Horrez gainera, udalak jubilatuen egoitzako ordutegi berriaz informatu gura izan ditu Ursula Donea elkarrekin bazkideak. Azaldu dutenez, astelehenetik zaturara arratsaldeko 16:30etik 21:00etara egongo da zabalik, eta domeka zein jaiegunetan 17:00etatik 21:00etara.

peugeot.es

BIZITZA LUZEA ERREGEARI

1985
PEUGEOT 205

1999
PEUGEOT 206

2007
PEUGEOT 207

2013
PEUGEOT 208



8.900€^{-TIK}
AURRERA
PIVE PLANA BARNE

ABC
MEJOR COCHE DEL AÑO
2013

PEUGEOT RECOMIENDA **TOTAL** Bezeroaren arretarako 902 366 247

Peugeot 208 gama: kontsumo mistoa (l/100 km): 3.4tik 5.8ra. CO₂ igorpenak (g/km): 87tik 135era.

PEUGEOT 208. 2013ko AUTORIK ONENA.

Hainbat arrazoi izan dira Peugeot 208 autoak tronua eskuratzeko: gidatzeko leku iraultzailea, formatu handiko ukimen-pantaila, bolante trinko eksklusiboa, azken generazioko motorrak eta Stop&Start teknologia. Eta horri guztiari, 205, 206 eta 207 autoen txapeldun izaera gehituta, 2013ko ABC Autorik Onena bihurtu da Peugeot 208.

PEUGEOT FINANTZAKETA

Penintsulan eta Balear uharteetan gomendatutako PSP 8.900 €, 3 ateko Peugeot 208 ACCESS 1.0 Vti 68 CV/50 kW autoaren kasuan, aire girotuarekin eta irratiarekin (zergak, garraioa, deskontuak eta PIVE plana barne). Banque PSA Financieren bidez finantzatzen duten partikularrentzako, gutxieneko kapitala 6.000 euro, gutxieneko permanentzia 36 hilabete, betiere, Seguridad Plus Peugeot 2+1 berme komertzialeko hedapen osagarria edota 40.000 km-ra artekoa kontratatzen bada (bietatik lehenago gertatzen dena) eskura edo abonu bidez ordainduta, eta nahitaez 36 hilabeterako permanentziarekin. Ezin daiteke beste eskaintza batzuekin batu. Eskaintza honek balioa izango du 2013-03-31 datara arte. Argazkiko modeloa: Peugeot 208 Allure, aukerako ekipamenduarekin.

PEUGEOT 208 BERRIA

ZIORLA AUTOAK

Santamaña kalea, 19 - 48215 Iurreta - Tel.: 94 621 71 30

MOTION & EMOTION



PEUGEOT

> ELORRIO

Elorrio helmuga turistiko moduan sendotzen dabil

Elorrio ezagutzera emateko antolaturiko bisita gidatueta 1.300 lagunek parte hartu dute 2012an; %94 Euskal Autonomia Erkidegokoak izan dira



Ana Otadui Elorrioko alkatea eta Josu Ugarte Aldundiko Turismo arloko zuzendariordea, prentsaurrekoaren ostean.

> JONE GUENETXEA

Ana Otadui Elorrioko alkateak eta Josu Ugarte Bizkaiko Foru Aldundiko Turismo arloko zuzendariordeak 2012an martxan jarritako proiektuen emaitzak

eman eta 2013ko erronkak azaldu dituzte. Udalak turismora bideratuta antolatu dituen egitasmoen inguruko datuak azaldu ditu. Bisita gidatueta parte-hartzaileei egindako inkeste-

tako datuez gainera, ondarearen ibilbidea azaltzen duen audiogiden zerbitzuaren bidez jasotako datuak bildu dituzte udaltzaingoaren bulegoan. Ez dituzte zenbatu, bestelako infor-

mazio eskaerak edo materialen eskaerak (gidak, planoak, kata-logoak...), herriak ez baitauka horretarako bereziki sortutako turismo bulegorik. 2012an 37 bisita gidatu egin dituzte: %40 euskaraz eta %60 gaztelaniaz, eskaeren arabera. Bisitaldi horietan, 1.300 lagunek parte hartu dute, gehienak (%84) 31 urtetik gorakoak izan dira, eta horietatik %60 gizonezkoak eta %40 emakumeak. Jatorriaren arabera, %94 Euskal Autonomia Erkidegokoak izan dira. Bisita gidatuaren erabiltzaileen %78k ekimena "oso ondo" hartu du, horien edukiengatik eta giden azalpenengatik, batez ere; beste %21ek "ondo" baloratu zituen.

2013 honetan Elorriok eskaintza turistiko berriak sortze bideratutako politikak sustatzen jarraituko duela azaldu dute. Bost kanpaina berri aurreikusi dituzte. Lehenengoa antolatzen dihardute, Aste Santuko oporraldiaz baliatuta. Jaiegun eta asteburuetan bisitariak herrigune historikoa ezagutzeko aukera eduki dute, herriaren eta bertokoen historian sakonduta. Gainera, udan Argiñetako indusketetara bisita berriak eskainiko dituzte, eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako Europako Ondarearen jardunaldien edizio berrian parte hartuko du Elorriok.

Truke azoka domekan, Errekakaleko jaietan

> MARKEL ONAINDIA

Gaur hasiko dira Errekakaleko jaiak. Hainbat tabernak bultzatutako jaietan musika izango da nagusi, baina bes-telakorik ere egongo da. Esaterako, domekan truke azoka egingo dute plazan. Ekimenaren helburuez galdetuta, krisi sasoiaren kontsumitzeko beste era bat sustatu gura dutela esan dute azokaren antolatzailleek. 150 mahairako lekua egongo da, eta 140k eman dute izena dagoeneko; %90 Durangaldekoak dira, esan dutenez. Herritarrak ere animatu dituzte euren etxeetako gauzak eroan eta trukatzera. Bestalde, merkatariek eta artisauek ere erakutsiko dituzte euren produktuak kaleetan.

Gaur, Pixontxis eta Itzia-rreren Semeak musika taldeek zabalduko dute egitaraua. Bihar arratsaldean pilota partiduak jokatuko dituzte, eta Luhartzek erromeria eskainiko du arratsaldean eta gauez. Gaztetxean ere kontzertuak antolatu dituzte.

> GARAI

Herriko ohiturak eta dantzak liburu batean batu dituzte

Otea-Loran elkarteak bultzatu du proiektua; gaur egingo dute aurkezpena, 19:00etatik aurrera

> M. O.

Gaur aurkeztuko dute *Garai: ohiturak, dantzak eta jaiak* liburua. Otea-Loran elkarteak bultzatu du proiektua, eta elkartearen bertan egingo dute aurkezpena 19:00etatik aurrera. Bultzatzaileek esan dute 2009an hasi zirela ideia garatzen: "Hasierako helburua, sakabanatuta zegoen informazio guztia batzea izan zen". Iaz liburua sortzeko aukera suertatu zitzaion, eta udalaren babesaz gainera, Gerediaga elkarteak Txelu Angoitiak lagundu die koordinazioan. Hasierako helburu hartatik sendotzen joan da proiektua; aparteko informazioa

batu dute herriari buruz. Esaterako, lehengo ohitura haietatik gaur egun geratzen diren inguruko argazkiak eta testuak ere badaude liburuan. Bertan, protagonistak garaitarrak izatea gura dute, adierazi dutenez.

Ohitura, dantza eta jaien inguruko ikerketa Iñaki Irigoienek egin du, eta osorik dago liburuan. Gaur egungo argazkiak Angoitiak jaso ditu, eta testuak Uxue Martinezek ondu ditu. Gainera, DVD bat ere badakar lanak. Bizkaiko Dantzarien Biltzarreko Jon Gamindek egindako dokumentala, argazkiak eta dokumentuak daude grabatuta.

Emaitzagaz pozik

Otea-Loran elkarteak pozik agertu dira emaitzagaz. "Angoitiak koordinazio lan bikaina egin du", esan dute. Liburua sortzeko beharrez hainbat kontaktatu egin dituzte, eta aurrerantzean ere informazioa batzen jarraitzeko asmoa daukate.

Ohitura, dantza eta jaien inguruko ikerketa Iñaki Irigoienek egin du, eta osorik dago liburuan

> IURRETA

Seme-alaben hezkuntzan laguntzeko ikastaroak

> AITZIBER BASAURI

Seme-alaben hezkuntzan gurasoei laguntzeko eta elkarren arteko harremanak lantzeko ikastaroak eratu dituzte Ibarretxe kultur etxean. Guraso eta hezitzaileei zuzenduta daude, eta doan dira. Euskaraz eta gaztelaniaz emango dituzte, eta apirilaren 11ra arte dago izena ematea.

'Krisialdi kontsumista' gizartean, nola hezi eta nola jokatu izenburupean jardungo dute lehenengo saioan. Ondoren, honako gaiok ere izango dituzte hizpide: *Antsietatean, ziurgabetasunari, estresari... (norbanakoa, familiartekoa, haurrak...) nola aurre egin eta Norbanakoaren barnetasuna berreskuratu, introspektzioa, itxaronaldia, isiltasuna...* Juan Carlos Alonso psikologoa izango da hizlaria.

Euskarazko saioak apirilaren 15ean, 18an eta 22an izango dira; gaztelaniazkoak, 23an, 29an eta 30ean. Guztiak hasiko dira 18:30ean. Kultur etxean eta Maiztegi herri eskolan eman daiteke izena.

> IZURTZA

Trafikoak aire kalitatean duen eragina neurtuko du plazako neurgailuak

Amankomunazgoak eskualdeko hainbat lekutan ipinitako neurgailuetako bat Izurtzan dago

> JOSEBA DERTEANO

Orain hiru urte, Durangaldeko airearen kalitatea aztertze neurtzeko egin zituen Amankomunazgoak. Orain, bigarren azterketa bat abiatu dute, Azterlan zentro teknologikoaren bidez. Oraingo azterketa honek trafiko emariak herriguneetako airearen kalitatean duen eragina neurtuko du. Kutsadura maila

neurtzeko, neurgailu batzuk ipini dituzte eskualdeko hainbat lekutan, eta horietako bat Izurtzako plazan dago, autobus geltokiaren eta mediku kontsultategiaren artean.

Ondoren, datu horiek trafiko emariagaz alderatuko dituzte. Horretarako, trafiko emariak neurtzeko kanpaina bi egingo dituzte uztailean bitartean.



Izurtzako plazan ipini dute neurgailu bat.

> DURANGALDEA ASTEON

Txirrindulari bat hil da kamioi bategaz izandako istripuan

Durangoko 55 urteko bizikletari bat kamioi batek harrapatuta hil da eguazten honetan, Ba-saurin. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailak jakitera eman duenez, kamioi gidariak positi-bo eman du drogen azterketan, eta hilketa arduragabea egotzi-ko diote.

Maristetako Uniker taldea finalista RetoAlcoa txapelketan

Administrazio kudeaketaren inguruan Alcoa fundazioak antolatzen duen RetoAlcoa txapelketaren XI. edizioan, Durangoko Maristak ikastetxe-ko Uniker taldea finalera heldu da. Hainbat erkidegotako 800 ikaslek parte hartu dute ekimen honetan. Apirila-ren 25ean Madrilén jokatu den fina-lean izango dira durangarrak.

Udaltop topaketetan izena emateko aukera dago

Udaltop udaletako euskara zerbi-tzuen topaketen 5. edizioan apiri-laren 19ra arte izena eman daiteke. Lasarte-Orian apirilaren 25ean eta 26an egin gura dituzten jardunal-dien gaia *Nola aktibatu herritarrak udalarekin euskaraz jarduteko? Zer egin eta nola egin euskaraz ikus gai-tzaten?* izango da.

Madalenako ermitaren sarreran, zaharberritzeko lanak egin dituzte

Durangoko Udaleko lan-brigadak hainbat konponketa lan egin ditu Madalenako er-mitan. Duela hilabete batzuk aurrealdeko lorategiak atondu zituzten, eta orain arku-pea berriztatu dute. Harlauzak masa arra-kalatuzkoak ziren, urarentzako bide barik. Ur estolda ere behar den moduan egokitu dute, atariko maila kendu egin dute eta ar-kupe guztian hareazko lauzak jarri dituzte.

> ABADIÑO

Euskal Fondoa diruz laguntzen segitu edo ez, erabaki barik oraingoz

Martxoko bilkurarako aurreikusitako gaietako bat zen, baina zerrendatik atera zuen alkateak

> I.E.

Martxoko udalbatzarreko gai or-denean argitaratu zuten “Euskal Fondoa: bazkide izateari utzi” puntua. Baina ez zuten gaia batzarrean eztabaidatu. Udalak erabakitze-ko du, beraz, garapen bidean dauden herrialdeekiko lankidetzarako elkarte hori di-ruz laguntzen jarraituko duen.

Jose Luis Navarro alkateak azaldu duenez, “gobernu talde-

kook Euskal Fondoaren bazkide izateari uztearen aldekoak garen arren, uste dugu 2013ko udal au-rrekontu proposamenari lotuta eztabaidatu beharreko gaia dela, ez batzorde batean erabakitze-koa”. Navarro alkatearen berbe-tan, horregatik erabaki zuen gaia martxoko udalbatzarraren gai zerrendatik kanpo uztea: “Neure akatsa izan zen gaia bil-kurako zerrendan sartzea, eta horregatik kendu nuen”.

Hala ere, Abadiñoko Indepen-dienteak taldea zergatik dagoen udala Euskal Fondotik atera-tzearen alde azaldu du Jose Luis Navarro alkateak: “Uste dugu beste era batzuk egon daitezke-e la garapen lankidetzak eta lagun-tza sustatzeko”.

Navarro: “2013ko udal aurrekontuari lotuta jorratu beharreko gaia da Euskal Fondotik atera edo ez”

Zelaieta peatonalizatzeko udalaren asmoen kontra sinadurak batzen

Auzoko hiru tabernatan eta denda batean dabilta sinadurak biltzen

> ITSASO ESTEBAN

Txanporta, Zeletabe, eta Solo-koa inguruko auzotar, dendari eta tabernariei auzoa peatonali-zatzeak ekarriko lizkien “kalte larriak” salatze-ko sinadura bil-keta hasi dute. Zelaietako hiru

tabernatan eta denda batean da-biltza sinadurak biltzen. Azke-naldian zirkulazioan egindako aldaketak “auzotarrei galdetu barik eta abisu barik” egin iza-na kritikatu dute. Sinadura bil-ketaren bultzatzaileek esan du-

tenez, ehundaka sinadura ingu-ru batu dituzte dagoeneko.

Auzoa oinezkoentzako ego-kitzeko “udalak zer plan dauz-kan” informatzeko eskatzen du-te, eta “alkatetzak auzotarrei eta dendariei iritzia eskatzea”.



Dendari eta tabernariei auzoa peatonalizatzeak ekarriko lizkien “kalte larriak”

Auzoa oinezkoentzako egokitze-ko “udalak zer plan dauzkan” informatzeko eskatzen dute

“Ez dut ulertzen auzoaren peatonalizazio proiektua eza-gutu barik zergatik hasi diren kontrako sinadurak biltzen”, dio Jose Luis Navarro alkateak: “Izan ere, jendeari proiektua-ri buruzko iritzia eskatzeko as-moa badauka udalak”.

> BERRIZ

Belaunaldien arteko ibilbideak aurten ere prest

Balioak eta bizipenak trukatzeko da helburua; lehenengo ibilaldia San Lorentzora egingo dute

> AMAIA UGALDE

Iazko esperientzia errepikatze-ko asmoz, belaunaldi arteko har-tu-emanak bultzatzeko bost ibil-bide antolatu dituzte Berriz Ere kultur eta mendi taldeak eta Be-rrizko Udalak. Zailtasun gutxiko ibilbideak izango dira, gehienak Berriz inguruan egitekoak, eta lehenengoa apirilaren 14an egin-go dute San Lorentzora.

Lehen ibilbide hori 8 kilome-trokoa izango da, eta hiru or-

duan egitea kalkulatu dute. BBK paretik irtengo dute San Loren-tzorantza, 09:30ean. Maiatzaren 26an Sarriarako irteera egongo da, ekainaren 2an Urbiara joan-go dira, eta udazkenean GR Mi-keldi eta San Juan eta Zaldiba-rrerako txangoak egingo dituz-te. Irteerak doan dira, eta uda-letxean, nagusien egoitzan edo kiroldegian eman daiteke izena.

Iaz, batez beste 54 partaide Jarduera fisikoa bultzatzeko eta belaunaldien arteko balio eta bizipenak trukatzeko antola-tu ziren ibilbideak iaz, lehenen-go aldiz. Batez beste 54 pertso-nek parte hartu zuten ibilaldie-tan, eta baserriz baserri joan-dakoan, esaterako, 127 lagunek parte hartu zuten.

Zailtasun gutxiko ibilbideak dira, gehienak Berriz inguruan egitekoak; hilaren 14an izango da lehena

Euskal Herriaren aukera ekonomikoak berbagai

Kantxa Zati Batek ‘Erabakitze-ko eskubidea eta burujabetza ekonomikoak’ hitzaldia antolatu du

> A.U.

Euskal Herri burujabe batek ekonomia antolatzeko izango litzuzkeen aukeren gainean hitzaldia emango du Antón Borja Álvarez ekonomialariak da-torren asteko zapatuan, apiri-lak 13. Erabakitze-ko eskubi-dearen aldeko Kantxa Zati Bat ekimenak antolatu du berbal-dia, eta kultur etxean izango da, 12:00etan.

Erabakitze-ko eskubidea eta burujabetza ekonomikoak izen-buruean jardungo du Antón Borja ekonomia doktoreak. Euskal Herrian krisiak izan di-tuen eraginen gainean, eta ber-tako ekonomia antolatzeko eko-nomikoki subiranoak izanda egongo litzakeen egoeraren gai-nean egingo du berba.

Idiazabalen sortutako Na-zioen Mundua mugimendua oi-narri hartuta jaio zen Kantxa Zati Bat 2012 amaieran. Orain arte, erabakitze-ko eskubidea-

ren gainera ituna prestatu du-te, ahalik eta berriztar gehie-nen atxikimendua jasotzeko asmoz. Galdetegi bat ere pre-statu dute, herritarrek eskubi-de horri buruz duten iritzia ja-sotzeko.

Ekimenetik azaldu dutenez, ahalik eta esparru gehienetako berriztarrek batu gura dituzte erabakitze eskubidearen ingu-ruan. Hurrengo batzarra apiri-laren 10ean izango dute .



Iazko abenduaren 29an 140 berriztarrek sinatu zuten Kantxa Zati Baten ituna.

▶ Berbaz

ÁNGEL VIÑAS | Historialaria, ekonomialaria eta diplomatikoa | Madril, 1941



“Mola ez zen estatu kolperako bakarrik prestatu; gerrara joateko prest zegoen”

Apirilaren 12an Durangora etorriko da Ángel Viñas historialaria. Martxoaren 31 pasa berri den honetan, gerra zibilean italiarrek eta alemaniarrek izan zuten esku-hartzea edukiko du berbagai. Hitzaldia Durangoko Arte eta Historia Museoa emango du, 19:00etan hasita.

➤AMAIA UGALDE

Italia eta Alemaniaren parte-hartzerik barik, zelakoa izango litzateke gerra zibila?

Horren inguruan hainbat espekulazio egin daitezke, baina argi dago, Hitlerrek eta Mussolinik erraztu egin zuten Francok irabaztea. Historiografia frankistak ukatu egin du hori, jakina. Orduko hainbat dokumentu ikertu ditut; frankistak, errepublikazaleak, alemaniarrek, italiarrak, sobietarrak... Eta ondorioa argia da: laguntza nazifaxista masiboak ez zuten errepublikazaleen aldean maila horretako kontraparterik eduki.

Zer zeukaten irabazteko Alemaniak eta Italiak?

Geostrategiaren ikuspegitik, demokrazien alde egon ahal izango litzatekeen errepublika kendu, eta Frantziaren posizioa ahulduko lukeen erregimena jaretzea komeni zitzairen. Hitlerrentzako Frantzia zen aurre egin beharreko lehen etsaia, eta Mediterraneoan Italiaren zabalkundea itxi zezakeena. Armagintza-aren ikuspegitik, arma berriekin esperimenduak egin eta teknika berriak landu ahal izan zituzten.

“

Espekulazioak egin daitezke, baina argi dago Hitlerrek eta Mussolinik erraztu egin zutela Francok irabaztea”

“

Von Richtofen txostenak argi azaltzen du bonbardaketekin suteak eta suntsipen orokorra lortu gura zutela”

Noiz ikusi zuen Francok laguntza eskatzeko premia?

Dokumentuetan ageri denez, ia altxamenduaren momentutik. Hori bai, beti eztabaidagai izan dena zera da, ea parte hartu zuten Alemaniak eta Italiak altxamenduaren prestaketan. 1973ko nire doktorego tesian frogatu nuen Hirugarren Reichak ez zuela lagundu. Dena dela, duela gutxi jakin ahal izan dugunez, Calvo Soteloren lagunak italiarrek berbetan egon ziren 1936ko udaberrian, gerrarako material masiboa lortzeko. Uztailearen 1ean heldu ziren akordiora. Mola ez zen estatu kolperako bakarrik prestatu; gerrara joateko prest zegoen, bere ondorio guztiekin.

Zelakoa izan zen kolpisten eta Mussolini eta Hitlerren arteko hartu-emana?

Ez zen beti ona izan. Mussolinik Espainiako abentura ahalik eta arinen amaitu gura zuen. Francok gerra luzatzeak kalte egiten zion, bere helburuetarako behar zituen kapital politikoa eta diplomatikoa gastatzea zekarrelako. Hitlerri ez zion horrenbeste ardua. Beste potentziek gerra hartan zuten arreta ipinita, eta Asia aldeko boltxebikeen kontrako bo-

rrokari propaganda egiteko bali izango zion.

Bonbardaketek helburu militarrez gain, zibilak ere izan zituzten. Zergatik?

Zibilen kontra eraso egitean, erresistentziaren adorea apurtuko zutela uste zuten. Euskal lurretako bonbardatekin, alemaniarrek erasoaren prestaketen garrantziak jabetu ziren, gero antzeko erasoak egiteko Frantzia, Belgika, Holanda...

Zergatik ateratzen zituzten bonbardaketen argazkiak?

Erasoen eraginkortasuna aztertzeke. Bonbardaketen aurretik eta ondoren egindako argazkiak konparatuta, teknikak zelako emaitzak izan zituzten ikusiko zuten, eta horren arabera, hurrengo bonbardaketetan zelan jokatu eta zelako bonbak erabili erabakiko zuten.

Durangoko hitzaldian interbenzio horren alderen bat nabarmenduko duzu?

Bai. Wolfram von Richthofen koronelak, Durango, Eibar eta Gernikako bonbardaketen ostean txosten bat aurkeztu zion Berlini, eta haren gainean hitz egin-

go dut. Stefanie Schüler-Springorum historialariak helarazi dit txostena, eta bere laguntza eskertu gurako dut.

Zer azaleratzen du txostenak?

Alemaniako eta Italiako bonbardaketen eraginak konparatzen ditu, eta etorkizuneko erasoetarako gomendioak ematen ditu. Horrez gainera, hiri bakoitzeko suntsipen portzentajeak ematen ditu. Kalkulu akats batzuk badaude, esaterako, Durangoko biktimen kopuruan. Txostenean, gainera, argi geratzen da Gernikako bonbardaketa ez zela helburu militarren kontrakoa izan, lehegailudun bonbak eta bomba su-eragileak erabili zituztelako. Suteak eta suntsipen orokorra lortu gura zuten. Orain arte, dokumentuetan ez da horrelakorik zuzenean agertu.

Gertatutakoa nahikoa ikertu da?

Ildo orokorrak bai. Orain, Xabier Irujoren eta Schüler-Springorum lanek etorkizun handiko bidea zabaldu dute. Frankistek suntsitu egin zituzten dokumentu asko. Geratzen direnak eta Alemaniako dokumentuen azterketazehatzagoak berri gehiago ekarri beharko litzukete.



Udaleko Kanpaldiak 2013

UDAROAN FINKOAK

Albeniz

LH 3. eta LH 4.mailakoak
(8-10 urte)

Uztailaren 16tik 22ra

Prezioa: 180€ bazkideak
205€ gainontzekoak

MendiGorria

LH 5. eta LH 6.mailakoak
(10-12 urte)

Uztailaren 3tik 14ra

Prezioa: 250€ bazkideak
275€ gainontzekoak

IBILTARIA

Iparraldeko kostaldea

DBH 1 eta DBH 2
(12-14 urte)

Uztailaren 17tik 28ra

Prezioa: 250€ bazkideak
275€ gainontzekoak



Udalekuetan izena emateko epea apirilaren 15etik maiatzaren 3ra arte Berbaro Elkartean:
Pinondo plaza 1, 1.solairua / www.berbaro.com / gazteak@berbaro.com / 94 6202540



Durangoko bonbardaketaren harira

“Noticias de Durangaldea, HEMENDIK” Deia egunkariaren gehigarriak 83. zenbakian Durangoko bonbardaketaren inguruan idatzitako erreportajeak harrituta utzi gaitu.

Suposatzen dugu Deia-ko gehigarri horretan agertzen diren idazkiak EAJren onespenez politikoarekin idatzita daudela. Gertaera horren oroimenean banatu diren propagandetan inolako irizpide politikorik ez dela agertzen ikusita, pentsatzekoa da talde politiko horren irizpide “ofiziosoa” dela.

Erreportajearen zehar egiten diren aipamenen artean, gure ikuspuntutik azpimarratzekoak eta arbuigarriak diren batzuk aipatu nahi ditugu; ekintzaren motibazioak, egilearen nortasuna, gertaera horren errepikapena saihesteko oroimenaren beharra eta inpunitatearen nolabaiteko salaketaren aldarrikapena.

Herritarrek egunerokotasunetik aparte beste ardurarik ez zeukatela, gerra baten erdian murgildurik zeuden bitartean, gatazkaren izaera bera ezkutatzeko da. Gure iritziz, ekintza hori testuinguru jakin batean gertatu zen, eta saraskiaren atzean bazeuden agintzen zituzten pertsonak eta helburu militar eta politiko argiak. Egilearen nortasuna ita-lia izatea bigarren mailako berria da, ekintzak agindu zi-

tuzenak militar espainolak izan ziren, falangista eta karlisten babes politiko eta laguntza zuzena zeuzkatenak eta eliza katolikoaren bedeinkapenarekin.

Sarraski horretan eta beste hainbestetan oinarritu zen berrogei urte iraun zuen sistema politiko faxista, non erantzuleak, inpunitate osoarekin, estatu totalitarioaren boterea erabili zuten euren borondatea inposatzeko.

Oraindik zauriek zabalik jarraitzen dute eta konfliktu politikoaren ondorioak mantentzen dira, horregatik oroimenak bakarrik ez du bermatzen gertaeraren errepikapen eza, gure ikuspuntutik benetako memoria da elikatu behar dena. Herriak egia ezagutu behar du, zer gertatu zen eta zer-gatik, nortzuk izan ziren erantzule eta haiek egindako mina onartu.

Halako gertaeren aurrean erdi egiak esateak ez du balio benetako justizia eta erreparazioari bidea zabaltzeko, eta horiek ezinbesteko baldintzak dira herritarren artean elkarbizitza baketsua lortzeko.

Horren alde egingo dugu, eta herritarraren protagonismoa lagundu eta babestuko dugu, aldi berean, mugak eta isiltasun “zuhurraren” diskurtsoa salatuko dugu. Horregatik, ez dugu parte hartu oinarri gabeko ekitaldi instituzionaletan.

Durangoko Bilduko zinegotziak

Adituek esaten doskue pazientzia euki behar dogule, esperantza ez dogule galdu behar, eta lasai jarraitu behar dogule.

Baina batzuetan, Ama, hainbeste pazientziagaz, hainbeste esperantzagaz, eta hainbesteko lasaitasunegaz ... Lokartuko ez ete garen bildurre sartzen jata.

Ezpabere, zaharrak barri, Ama:

Alaitzek Parisen jarraitzen dau; Gorka be, Frantzia aldean ei dago, egia esan, ahaztu samar; Aitziber, Alikante aldera bialdu dabe, eta ez oporretan, ez hoixe; eta Gari hurbiltxoago dago bai, baina honek be, Burgosen jarraitzen dau.

Ah! eta Joseba?, akordatzan zara Josebaz, Ama?

Ba ikusi, ikusi dabe oraintsu. Eta zutaz asko akordatzan dala esan ei dotsie.

Ia Ama, ia laster ekartzen doguzen horrek be honantza.

Horretan be, ahaleginek ein, eiten doguz, Ama.

Bilbora be joan ginan, eta jende mordo bat batu ginan bertan; baina aitortzen dotsut, Ama, egunerokoan ez nabilela hain fin; astelehenetan be, ez naz beti agertzen, eta azkenengo barikuetan, sarritan ahazten jata.

Ai Ama Euskal Herri maitea!

Bihotz-bihotzean zaitut, baina ez da nahikoa, Ama; horrek ez nau betetan, gehiago behar dot, Ama. Nire ondoan behar zaitut, egunero-egunero gure ondoan behar zaitugu, Ama!

Desiatzen nago, Ama, zu ikusteko.

Zure soineko gorri, berde eta zuri dotoreagaz, aske eta libre.

Eta dantzan, munduko beste Aberri guztiekin batera.

Bien bitartean, mosu handi bat, Ama.

Maite zaitut!

Mikel Aiarzaguena “Txapu”

SEI HANKAKO MAHAIA

IDOIA AGORRIA

PSE-EE



Euren Bankuak erreskatatzen dituzten bitartean, pertsonak hondatzen dira

Gizarte larrialdietarako udal etxebizitzak araudia onartu dugu Durangoko azken osoko bilkuran. Araudi honen xedea da, gizarte-premian dauden familiek udalak eskura dituen etxebizitzetan ostatu hartzeko eta etxebizitza horiek erabiltzeko modua arautzea.

Baina alde batetik, 9tik 2 baino ez daude beharrezko guztiarekin hornituta, EAJk aurkeztutako aurrekontuan ez dago dirurik beharrezko guztiarekin hornitzeko, ezta egoera ekonomiko larrian dauden Durangoko pertsonen eta familiei errentan emateko ere.

Beste aldetik, udalaren jabetzako etxebizitzak dira, premiazko kasuetarako: ohiko etxebizitza utzi egin behar eta besterik ez dagoenean, epe mugatu baterako, pertsona edo familia horrek bere bizileku-arazoa nolabait konpondu arte.

Eta gero nola konponduko dituzte arazoak? Laguntzarik gabe? Nora joango dira familia horiek? EAJk ez du erantzunik! Bere aurtengo aurrekontuan ez du ezer proposatu!

Gure proposamena hau da: Plan Integrala martxan jartzea, egoera ekonomiko larrian dauden familiei arreta emateko, laguntza emateko eta etxebizitza emateko. Errentako etxeen merkatariekin bitartekaritza publikoa eginez, etxebizitza hutsetako jabeek edo finantza erakundeek etxebizitza errentan jartzea udalaren arreta bereziarekin.

Ahal dugun guztia egin behar dugu, eta horregatik, aurrekontuetan zuzenketak egitea proposatzen dugu.

Iurretako abertzale bat

Egun on, Aberri maitea!

Eta zorionak, Oi ama Euskal Herri maitea!

Zorionak, batez be, gaur zure eguna dalako; eta hori ospatzeko, urtero lez, aurten be hementxe alkartu gara.

Egia da, Ama. Zuri asko gehiago gustauko jatzun hemen danok batera ikustea, baina oraindino be ez dogu lortu danok batzea.

Halanda guzti be, bagoaz aurreratzen, Ama, eta apurka-apurka bada be, hasi gara alkartzen, guk gura baino astiroago bai, baina beste batzuk nahi dabena baino arinago eta hobeto; eta hori, Ama, ondo goazen seinalea da.

Badakizu, Ama, abestu danok abesten dogu, “... gerturik daukagu odola zure alde emoteko...”.

Odola ez dakit... Baina karteratxo... Ez dakit ba...

Beno, Ama; itzi daigun hori beste baterako, ez da gaur egun aproposena gure artean musturtuta ibiltzeko.

Eta zelan zagoz zu, Euskal Herri maitea?

Oraindino be zatituta, irainduta, ukatuta, baztertuta, ... Gogoratzen dozu, Ama, zelan esaten doskuen: “...bonbak eta tiroak albora itziz gero, edozer gauzataz berba egin geinke...”.

Dana guzurre, Ama!

Aspaldi isildu ziran bonbak eta pistolak, eta orain disoluzinoa, eta parkamena, eta damua, eta ... Eta gero, auskalo zer barriro.

Zuk gogoan eukiko dozu inkisizinoa, ezta Ama?

Ba gaur, kostitutuzinoa ipinten doskue aurrez aurre, Ama.

Eta badakizu zer? Guk horri ezezko borobile emon geuntsen.

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko apirilaren 5a
11. urtea - 495. alea

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia eta Amaia Ugalde.
Maketazioa:
Ainhua Arizmendiarieta.
Zuzentzailea: Goiatz Etxeita.
Argazkilaria: Kepa Aginako, Zalao Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

> MUSIKA



Ibon Urizar

“Sermond’s-en zuzeneko esentzia izango du biharko kontzertuak”

Koldo Zubia, Jon Aramendi, Iñigo Larringan eta Egoitz Etxebarria dira Sermond’s. Lehen hirurek egin digute *Bidegurutzean* bigarren diskoaz berba. Elorrioko Gaztetxean joko dituzte kanta berriak, bihar

> ITSASO ESTEBAN

Kalean dago jada diskoa?

K.Z.: Prest dago jada diskoa, bai! Bost euroan ipini dugu diskoa salgai, Durangoko Arkarazon eta Herriko tabernan, Elorrioko Portalekuan, Zaldibarko Talkan, eta Abadiñoko Larranon.

Zelakoak izan dira lehenengo diskotik bigarrenarako igaro diren urte biak?

K.Z.: 2011ko martxoan hasi eta 2012ko urtarrilean amaitu genituen lehenengo diskoaren kontzertuak. Hilabete pare bat geldiegon ginen, eta astiro-astiro, disko berria prestatzen hasi ginen.

Jon Aramendi: Biziush gita-

ristak taldea utzi zuen, eta berarrantolatu egin behar izan dugu bai soinuari, bai abesti berriak sortzeari dagokionez. Dena luzatzea ekarri du horrek.

Izan daiteke aurreko diskotik erritmoa geldotu izana? Lehenengo inpresioa hori izatea?

K.Z.: Lehen gitarra bi zeuden lekuan orain bakarra dago, eta ez genion zentzu handirik ikusten lehen egiten genuen musika bera gitarra batez egiteari. Beste ukitu bat bilatu dugu.

Iñigo Larringan: Ez dakit abiadura kontua bakarrik den: disko osoa da aurrekotik desberdina. Beharbada, ez da hain agresiboa. Beharbada zehatzagoa eta sinpleagoa da, eta baxuak eta koruek garrantzi handiagoa daukate. Soinu berria bilatu dugu, eta jendeak ere esaten du: “Diferentea da, baina Sermond’s-en ukitua dauka”.

Zaila izan da bestelako ukitu hori ematea?

I.L.: Beti izan gara kantak gitarra biren elkarriketatik sortzekoak, eta sormen prozesua moldatu behar izan dugu.

K.Z.: Hasieran, Biziushen partez beste gitarrista bat sartzea pentsatu genuen, baina momentuz horrela jarraituko dugu: lagun talde bat gara, eta laukote egitura honegaz jarraitu gura

dugu, oraingoz. Dena dela, zuzenekoetan ikusten badugu beharrezkoa dela, ez dugu alboratzen beste gitarrista bat sartzea.

Zelan bete duzue bigarren gitarren hutsunea?

I.L.: Baxuari distortsioa sartu diogu, eta lau anplifikadorekin jotzen dugu, eta koroak ere gehiago lantzen dihardugu. Po-

zik gaude: probatzen, jolasten.

J.A.: Zerotik hasi gara zelanbait. Sortzeko beste metodologia bat baliatu dugu disko honetarako.

Sei kantu zergatik?

I.L.: Disko laburrek oso harre-ra ona daukatela diote adituek: hamabi kantako disko bat erosten duzunean ere, normalean lau edo bost entzuten dituzu. Sei dira

hemen: ez dago betegarrik!

K.Z.: Aurrera segitzeko, ahal bezain laster zerbait ateratzea behar genuen: hemengo musikan izentxo bat egin dugu, eta jotzen jarraitzeko behar genuen.

Zuzenekoetarako gogotsu?

I.L.: Desiatzen gaude!

K.Z.: Sei-zazpi kontzertu daukagu dagoeneko lotuta: Otxandion, Arrasaten, Gasteizen... Printzipioz, hilean hiru kontzertu eskaintzea da gure ideia.

Zer prestatu duzue biharko Elorrioko kontzerturako?

J.A.: Aurreratu dezakeguna da, Sermond’s-en zuzeneko esentzia edukiko duela biharko kontzertuak: jendeak gure taldetik gus-

Oraingoz laukote moduan aurrera egitea erabakita


Mauka disketxearekin atera du, aurreko *Azken bala* legez, Sermond’s-ek *Bidegurutzean*.

Apirilaren 11n bost urte beteko ditu Sermond’s-ek, eta

laukote moduan jardungo dute aurrerantzean. Ia urtebete igaro da Durangoko Plateruean Biziush gitarrista agurtzeko azken kontzertua eman

zutenetik, eta “urduri” baina gogotsu daude bihar taldearen zuzeneko indarra erakusteko.

Diskoaren izenburuak islatzen du Sermond’s-ek “non-dik jo erabaki behar izan duela” azken hileetan. Bihar ekingo diote bidaia berriari. Helmugetako bat: Euskal Herrikanpo ere kontzertuak jotzea.



“

Disko osoa da aurrekotik desberdina: ez da hain agresiboa. Zehatzagoa eta sinpleagoa da”

> MUSIKA

Beat Salad Recordsen eskutik, hip hop jaia, Plateruenean, bihar

Gaston Bandimic abeslari senegaldarra gonbidatu dute, esaterako, kantatzera

> ITSASO ESTEBAN

Hip hop zaleentzako hitzordua ipini du Durangoko Beat Salad Records ekoiztetxeak apirilaren 6rako. Durangoko Plateruenean izango da emanaldia, eta ekoiztetxeari loturiko hainbat lagun artista batuko ditu.

Plateruenean izango da apirilaren 6ko emanaldia, eta Beat Salad ekoiztetxeari loturiko lagunak batuko ditu

Ekoiztetxe horregaz diskoa grabatu du, esaterako, Gaston Bandimic abeslari eta produktore senegaldarrak, eta Platerueneko biharko emanaldi horretara gonbidatu dute. Def Dara Studio ekoiztetxea martxan ipini zuen Gaston Bandimicek,

eta bere herrialdean, Dakar hiriburuan ekin zion errimekin jolasteari. Senegaldik kanpo dihardu azkenaldian bere sor-kuntza zabaltzen, eta Durangoko Beat Salad Recordsekin elkarlanean sarreratu ditu azken lanak: Durangoko ekoiztetxearen webgunean, *www.beatsaladrecords.com* helbidean dago Durangoko Rock Izar Eskolan grabaturiko lan horren aurre-rapen bat entzungai.

Kantuan jardungo du, baita, sustraiak Senegalen dituen Omzo MFk. Urte amaieran kaleratu zuen *Suñu salad* diskoa aurkeztuko du Omzo MFk.

Kantuan jardungo du, baita, sustraiak Senegalen dituen Omzo MFk: 'Suñu salad' diskoa aurkeztuko du

Itsua eta Nko Durangaldeko hip hoplarien Cayado Bros eta Clan The Warriors taldeak ere ariko dira Platerueneko hip hoparen jaialdi horretan. Colomboyk jardungo du ekitaldiaren aurkezpen lanak egiten, eta Itsua eta Jackie Djen sesioa ere gozagai izango da "galdu ezineko jai eta gau" horretan.



ElZotefunk

> LITERATURA

Udaberrirako irakurgaien gida berria kaleratu dute

Durango eta Iurretako bibliotekak osatu dute gida

Durango, Ondarroa, Markina-Xemein, Iurreta eta Ermuko bibliotekak argitaratu dute udaberrirako irakurketa gida: liburu eta ikusentzunezkoen hainbat gomendio bildu dituzte zerrenda horretan. *Udaberrian ze berri?* izenburupean eta adinaren arabera sailkatuta batu dituzte hainbat izenburu.

Euskadiko Irakurketa Publiko Sarean dago irakurketa gida eskuragarri. Udaberrirako irakurgaien proposamenak ez ezik, gidak, liburutegien ordutegiak eta bestelako informazioa ere eskaintzen ditu, gainera.

"Gure liburutegien lankide-tzaren emaitza da elkarlan hau, eta baliabideen optimizazioaren aldeko apustua erakusten du" diote egitasmoa bultzatu duten liburutegietako arduradunek.

Adinaren arabera daude gidako gomendioak zerrendatuta: lehenengo atalak gurasoek edo pertsona helduek umeei irakurtzeko gomendatzen direnak bil-tzen ditu. Bigarren atalak irakurtzen hasten ari direnentzako proposamenak jasotzen ditu, eta ondorengo kategoriek gainerako adinekoentzako irakurgaiak eskaintzen dituzte.

> LITERATURA

Berbaldi bi, emakumeari eta literaturari buruz

Iurretako kultur etxean izango dira saio biak

Apirilaren 12 eta 16rako antolatutuzte Iurretako Herri Bibliotekan, *Emakumea eta literatura* zikloaren barruko hitzaldi bi. Apirilaren 12an eta 16an, 18:30ean, Iurretako Ibarretxe kultur etxean egingo dituzte berbaldi biak.

Bigarren hitzaldian, liburu salduenen fenomeno hartuko dute Iurretako kultur etxean berbagai

Emakumeek sorturiko literatura eta kultura zabaltzeko helburuz sorturiko Skolas-tika taldeko Josune Muñoz literatura kritikariak eskainiko ditu hitzaldiak. Lehenengoan, *¿Sabes por qué lees lo que lees?* galdera luzatuko die Josune Muñozek berbaldia entzuter bertaratzten direnei.

Apirilaren 16ko hitzorduan, bestalde, liburu salduenen fenomeno hartuko dute Iurretako kultur etxean berbagai: *50 sombras de Grey* y otros fenómenos extraliterarios berbaldia eskainiko du Muñozek.

GEURE DURANGALDEA

MIKEL
ONANDIA

Arte historialaria



Larrearen tolesdurak

Durangaldean badauzkagu askotan oharkabea pasatu arren eskultura publiko interesgarriak. Horien artean, aipatzekoa da euskal eskulturagintzan erreferente den Vicente Larrea (Bilbo, 1934) artistaren *Abstrakzioa* (1994) izenburuko pieza ederra, Durangoko Arte eta Historia Museoren lorategietan kokatua.

Larrearen lengoia plastikoa bete-betean identifikatzen dugu lan honetan. Gorritz pintatutako 10 zentimetroko zabalerako burdinezko plantxaren trataerak –kurba, kontrakurba eta tortzio ezinezkoekin pieza bere baitan makurtu arte bihurrituaz–, bolumen benetan erakargarriak sortzen ditu. Tela edo formazio natural desberdinak gogorazten dizkigun metalaren itxura biomorfoa dela-eta, artistak indar espresibo bereziko estruktura dinamikoa lortzen du, aldakorra oso ikuslearen kokalekuaren arabera, sartu-irten eta konplexutasun partikularreko forma infinituak ahalbidetuta.

Tamalez, *Abstrakzioa* eskulturak degradazio zeinu ezberdinak –lohitasun nabarmena, geruza pikturikoaren galera eta ugertze kezkarria– agertzen ditu, eta ez dago bere one-nean. Horregatik, eta balio estetiko argiko pieza honek laster 20 urte beteko dituela kontuan izanda, historiakoagaz egiten den legez, gure inguruko ondare artistiko garaikidea patxadaz mantendu eta herritarren artean horrekiko interesa zabaltzeko denon artean esfortzu bat egin beharko genuke.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

APIRILAK 5 22:00etan
LOKALETIK AT: ERO + URGATZ + LAUMONO. Doan.

APIRILAK 7 17:00etan
IRRIEN LAGUNAK
Umeentzako ikuskizuna. 3-5 euro.

APIRILAK 12 22:30ean
ANJE DUHALDE
Musika kontzertua. 8-10 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

NUESTRA SEÑORA DE LAS NUBES

El Óbolo Producciones

Apirilak 13 • 20:00

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hemen agertu gura badozu deitu!

94 621 79 02

> BERTSOLARITZA

Durangaldeko seikotea txapeldun bertsolari gazteen XXI. BBK sariketan

Ipar Uribeko taldeari irabazi zion Durangaldekoak, martxoaren 22ko Bilboko Kafe Antzokiko finalean

> J.G./I.E.

Martxoaren 22an Bilboko Kafe Antzokian jokatu zuten finalean jantzi zuen Durangaldeko taldeak bertsolari gazteen XXI. BBK sariketaren txapela. Ehun-

ka lagunek bertatik bertara jarraitu zuten saioa: Durangotik eta Algortatik joandako ikasle gazte asko izan ziren entzule, eta txalo eta babes oihuekin animatu zituzten bertsolari gazteak.

412 puntu jaso ditu Durangaldeko Garoa Angiozarrek, Iru-ri Altzerrekak, Txaber Altubek, Aitor Bizkarrak, Ander Gerri-kaetxebarriak eta Ane Alegriak osatutako taldeak. Ipar Uribe

puntu gehiago batu zituen, ostera, 18 urte artekoen lehian.

Antolatzaileek azaldu dute-
nez, sariketa honi esker, "hama-
lau bertsolari lehen aldiz igo dira
oholtzara era honetako lehiaketa

batean aritzeko". Bizkaiko ber-
tsolaritzaren etorkizunaren ha-
rrobi garrantzitsua da.

Finalera iritsi diren bi eskual-
deek, Durangaldeak eta Ipar Uri-
bek, bertsolaritzan ibilbide opa-
roa egin dute dagoeneko, hein
handi batean, beraien bertso es-
kolek emandako bultzada ga-
rrantzitsuari esker. Eskola haue-
tan hazi eta hezitakoak dira, bes-
teak beste, Igor Elortza, Unai

Finalean 412 puntu batu
zituen Durangaldeak; Ipar
Uribe gailendu zen, ostera,
gaztekoen taldean

Iturriaga edo Miren Amuriza
bertsolariak, Durangaldeari da-
gokionez. Algortako bertso es-
kolan, aldiz, Fredy eta Xabi Pa-
ya, Jone Uria, edota Arrate Illa-
ro jardun izan dira. Finalera ai-
legatu diren gazteei laguntza
osoa eman diete bertsolari ho-
riek, eta, finalean ere ikusle izan
ziren batzuk.

Bizkaiko Bertsozale Elkartea-
rekin eta Bizkaiko Ikastolen El-
kartarekin elkarlanean antola-
tu du BBK-k sariketa.

> ZINEA

Musika klasikoko ume prodijioez gogoeta, Hilean Behin zikloan

'I am not a rock star' dokumentala eskainiko dute apirilaren 11n, Elorrion

**> ITSASO ESTEBAN**

I am not a rock star dokumentala
eskainiko dute, Hilean Behin zi-
kloaren barruan, Elorrioko Itu-
rri kultur etxean. Kanadan ekoi-
tziriko lana da, Bobbi Jo Hart zu-
zendariarena. Lan musikala da,
eta musikari buruzkoa. Apirila-
ren 11n emango dute, 19:30ean.

Marika Bournaki, pianoa
jotzeko gaitasun berezia
daukan musikari kanadiarra
da filmaren protagonista

Pianoa jotzeko gaitasun be-
rezia daukan Marika Bournaki
musikari kanadiarra da do-
kumentalaren protagonista. Ha-
mabi urte zituenean hasi eta

hogei urte zituenera arteko mu-
sikariaren hazkuntza dokumen-
tatzen du *I am not a rock star* fil-
mak: talentu handiko umea ze-
lan bilakatzen den pertsona eta
musikari heldu erakusten du
lanak. Bere identitatearen bila
dihardu Marika Bournakik,
eta musikarekiko gura duen ha-
rremanak darama, izenburuak
dioen moduan, bera ez dela ro-
karen izar bat ondorioztatzera.

Musika klasikoari begira-
tzen dio apirilean Elorrioko Itu-
rri kultur etxean emango duten
dokumental honek: talentuak,
sakrifizioak, eta grinak zelan
eragiten dieten alor horretan
diharduten musikariei erakus-
ten du, besteak beste. Bournaki
gurasoen partetik jasaten
duen presioa ere islatzen du:
umetan ibilbide profesional
arrakastatsu bat abiatzea zelan
izan daitekeen kaltegarria.

Goizane Azpiri Maurtua

Kiromasajista

Drainatze linfatikoa

Masaje deskontrakturantea

Erlaxazio masajea

Ziatika, lunbalgiak, okerdurak

Aurpegirako KOBIDO masajea

%25eko DESKONTUA
lehenengo bisitan

San Inazio auzunea, 2 behea - Durango • Tel.: 675 706 599

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net


1955 ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carnicería
autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO



GREMIOEN GIDA



DEKORAZIOA



AROTZERIA



ITURGINTZA

Jaio barnizatuak

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrekaldeen eta era askotariko altzairuen lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarria.
- Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garain A - Berriz.
Tel.: 94 682 41 43 - 658 75 84 21
Fax: 94 682 48 95 - info@jaioarnizatuak.com

EGUIA S.L.
AROTZEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653

Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com

Soleguren kalea 3 - ABADIÑO
Tel.: 94 601 44 74
Faxa: 94 621 53 74
urtinga@euskalnet.net

urtinga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA



GARBIKETAK



ELEKTRIZITATEA ARGITAZPENA

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goieta, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

ARGITATZE TEKNIKAK
MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com



LORAZAINTZA

Jardines
Patxi
Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

> **ERRUGBIA**

Zapatuan, Santanderren jokatu du Durango Rugby Taldeak liga erregularreko azken partidua. Kepa Aginako

Euskal liga sendo baten alde egingo du DRTk maiatzeko kongresuan

Maiatz amaieran Madrilen egingo den kongresuak goitik behera aldatu dezake errugbi ligen egitura

JOSEBA DERTEANO

Denboraldi osoan partidu bakarra irabazita, Durango Ilarduyak jaitsiera promozioa jokatu beharko du Ohorezko B mailari eusteko. Maila bereko beste multzoan talde batek liga utzi duenez, Ilarduyak ez du aurkaririk une honetan. Espainiako federazioak erabaki beharko du zer egin. Hala ere, federazioak baditu hori baino buruhauste handiagoak. Estatu mailako errugbiaren egitura hankaz gora ipini dezake maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean Madrilen egingo duten kongresuak. Krisiak eta taldeek gastuei aurre egiteko dituzten arazoez ezinbesteko egiten dute egitura berri bat. Erabaki batzuk datorren denboraldian bertan sartu daitezke indarrean.

Maiatz amaierako kongresura Ohorezko mailako eta Ohorezko B mailako taldeetako ordezkariak daude deituta. Handik irtendako proposamenak Espainiako Errugbi Federazioko batzar orokorrak be-

rretsi beharko ditu ondoren. Aurretik idatziz euren proposamenak bidaltzeko eskatu die federazioak talde denei. Durango Rugby Taldeak argi du bere proposamena. Estatu mailan liga nagusi bakarra (Ohorezko maila) proposatuko du, eta autonomiaz autonomiako liga indartsuak. Beraz, proposamen horren arabera, Estatu mailako Ohorezko B maila eta nazional mailak desagertu egingo lirarteke, tokian tokiko ligak indartzeko; Euskal Herriaren kasuan, Euskal Liga sendo bat proposatu dute.

Euskal Marka

Taldeek egiturari dagokionez, badira pare bat urte Bizkaiko zein Gipuzkoako hainbat klub talde unifikatuak sortzeko la-

Taldeek ezin diete gastuei aurre egin eta egitura berri baten beharra nabaria da

nean dabiltzala. Euskadiko errugbi federazioak esan diete Jaurlaritza eta Aldundia euskal marka bat sortzeko babesa emateko prest daudela. Asmo horrek aurrera egingo balu, Bizkaian eta Gipuzkoan talde indartsu bana sortzea izango litzakete plana. Talde horiek lurralde bakoitze-

ko jokalaririk onenek osatuko lituzkete eta talde bi horiek izango lirarteke, euskal ordezkariak Espainiako Ohorezko mailan. Madrilo Kongresuan “eztabaidak” egongo direla dio Juan Manuel Iriondo DRTko presidentek, baina “irailera-ko erabaki inportanteak irten-ko dira”.

Harrobia eta formazioa etorkizuneko zutarriak

Gaur egun, 60 gaztetxo ditu Sukia errugbi eskolak

Durango Rugby Taldeak ezinbestekoa du harrobi sendo bat etorkizunari aurre egiteko. Gaur egun, 60 gaztetxoetik gora dituzte 12 urtera arteko hiru mailetan. Sukia errugbi eskola 20 gaztetxogaz hasi zela kon-tuan hartuta, urte gutxian hirukoiztu egin dute kopurua.

Horrez gainera, iaz ezin izan zuten infantilen talderik atera, baina aurren, talde bat sortu dute Elorrio Rugby Taldearen eta DRTren artean. Horri kade-

teen eta gazteen taldeak gehituta, behetik gorako egitura osoa bermatua du DRTk.

Gainera, jokalarien formazioarako Euskadiko entrenatzailer onenetakoak dituztela dio Iriondok, hain zuzen, Aratz Gallastegi eta Peio Urkidi. Lehenengo errugbi eskolako arduraduna da (baita kadete mailakoa ere), eta mailaz maila jokalariek jaso beharreko formakuntza zehazten duen estilo liburua prestatu du.

> **TRIATLOIA**

Bizikletarako ekipazioa zozkatuko du Garaiko taldeak

Garaiko Triatloi Taldeak uztailean antolatuko duen hirugarren triatloiaren harira, zozketa bat abiatu du. Hain zuzen, triatloirako buzo bat eta bizikletarako ekipazio bi (gizonentzako eta emakumeentzako bana) zozkatuko dituzte.

Zozketan parte hartzeko, Garaiko Triatloi Taldeak facebook-en duen orrialdean ‘atsegin dut’ botoiari eman behar zaio. Gura duenak maiatzaren 5eko eguerdira arte du zozketan parte hartzeko aukera.

> **FUTBOLA**

Zugazartaza gogoratzeko txapelketa dago lurretan

Rafa Zugazartazaren oroi-menezko bigarren futbol txapelketa jokatu dute zapatuan eta domekan, Iurretan. Bizkaitik Iurretako, Santutxu, Danok Bat eta Durangoko Kulturala batu-ko dira; Gipuzkoatik Antiguoko eta Tolosala; Arabatik Ariznabarra, eta Kantabriatik Atletico Perines. Denak lehen urteko kadete taldeak dira. Sailkapen faseak zapatuan jokatu dituzte (09:30-14:00/15:30-20:00), eta finalak domekan (15:30-19:30).

> **FUTBOLA**

Santurtzin lehia garrantzitsua du lurretakok

Domeka goizean Santurtziren futbol zelaia bisitatuko du lurretakok ohorezko mailan. Santurtzi bigarren dago promozio postuan, eta Iurretako laugarren: hiru puntuko aldea dago bien artean. Liga amaitzeko zazpi jardunaldiren faltan, pauso handia litzateke Santurtzitik hiru puntuak ekartzea. Aurtengo denboraldian Iurretakok oraindino ez du partidurik galdu etxetik kanpora: bost garai-pen eta zortzi berdinketa erdietsi ditu.

> BORROKA LIBREA

“Nire ibilbidean gusturen nabilen unea da orain bizitzen ari naizena”

Europako txapelketan zilarra jantzita, Mediterraneoko Jokoetarako prestakuntza planifikatzen dabil



Europako Txapelketan brontzezko domina bi ere irabaziak ditu Undak. Basque Team

> JOSEBA DERTEANO

Joko Olinpiarren osteko urtea ohi baino lasaiagoa izaten da parte-hartzaileentzat. Kirol munduko hitzordurik garrantzitsuenak amaituta, presioaren eta autoexijentziaren zamatik aske, abiapuntu berri baten an-

Mediterraneoko Jokoetan 2001ean parte hartu zuen azkenengoz, eta brontzea irabazi zuen

tzekoa izaten da kirolarientzat. Ez da Maider Undaren (35 urte, Oleta) kasua. Londresko Joko Olinpiarretan borroka librean brontzezko domina jantzi ondoren, aurtengo urtea inoiz baino mugituagoa eta emankorragoa izaten ari da. Espainia-

ko Txapelketa hamalagarren bider irabazi ostean, Europako Txapelketan zilarrezko domina jantzi du martxoan.

35 urte gaz, sasoi fisiko paregabea esperientziak dakarren eskarmentua gehitu dio, eta uneagaz gozatzen dabilela onartu du: “Nire ibilbidean gusturen nabilen unea da bizitzen ari naizena. Badakit zer egin behar dudan momentu bakoitzean, eta bakadit hori egin da emaitza onak etorriko direna”.

> Mediterraneoko Jokoak

Maider Undaren hurrengo hitzordu nagusia ekainean izango da, Turkian jokatu diren Mediterraneoko Jokoetan. Asteon hasi da prestakuntza planifikatzen. Lau urterik behin ospatzen diren joko horietan 2001ean parte hartu zuen azkenengoz Undak. Orduan 23 urte zituen, eta brontzezko domina irabaztea lortu zuen Tunis. Aurten, orduko lana “hobetzea” du helburu: “Urte asko joan dira. Orain beste maila batean nagoela uste dut. Urte hauetan esperientzia pilatu dut eta horrek asko balio du”.

ADITUAREN TXOKOA



Garazi Boveda

Futbol jokalaria

Asmoak haize eroan

Aste Santuko oporrak amaitzekotan daudenez, heldu da errutina batzuei berriz ekiteko garaia. Oporrak direla eta, ligan eta entrenamenduetan etena eduki dugu. Jaiegunak heldu aurreko azken partiduan, egun hauetan, nor bere aldetik saiatuz, geldirik egongo ez ginen promesa egin genuen. “Inoiz baino denbora libre gehiago daukat, beraz, egunero irtengo naiz korrika egitera”, edo “lagunekin mendira joateko aprobetxatuko dut” bezalakoak esanez.

Baina oporrak hasi ziren eta konturatu orduko bi-hiru egun igaro ziren burutik pasatu ere egin gabe korrika egiten irteteko asmorik. Hurrengo egunetan egindako promesez gogoratzen zara, eta ariketa fisikoa egiteko plana egiten duzu. Hurrengo goizean ziur irtengo zarela esaten diozu zure buruari, hori bai, iratzargailua jarri barik, opor egunak, opor egunak dira eta. Hurrengo egunean begiak zabaldu orduko goiz erdia igaro da. Bart gauean hain berandura arte geratu ez banintz... asmoa bazkaldu eta gerorako uzten duzu, baina bazkalostean beti dago zerbait egiteko.

Entrenamenduetara itzuli eta lehenengo korrikaldian igarri ohi da nor egon den geldi eta nor ez. Orduan gogoratzen zara nebaren urtebetetzea dela eta otorduan egindako *homenajetxuaz*, asteburuko juergaz edo egin ez duzun ariketa fisikoaz eta hurrengorako ikasi duzula pentsatzen duzu, baina...

> TXIRRINDULARITZA

Bizkaia-Durangkok soilik eusten dio monopolioari

Lointeken nagusitasunari aurre egin diote

Emakumeen Euskaldun Torneo hasi dute martxoan. Orain arte, lasterketa bietan Bizkaia-Durango izan da Lointek taldearen monopolioan muturra sartzea lortu duen talde bakarra. Balmasedan aurreneko hamar postuetik zazpi Lointek taldekako txirrindulariek bete zituzten. Bizkaia-Durango Ire-

ne San Sebastian (seigarren), Lourdes Oiarbide (bederatzigarren) eta Elena Lloret (hamargarren) izan ziren salbuespenak. Zallan ere aurreneko hamarretan sailkatu ziren San Sebastian eta Oiarbide. Sailkapen orokorrean zazpigarren eta zortzigarren daude. Aurretik, Lointek sei txirrindulari dituzte.

> TXIRRINDULARITZA

Talde lanaren saria jaso du Cafes Baque taldeak

Taldekako erlojupekoan podiumera igo dira

Martxoaren 24an Lehendakari txapelketako laugarren proba jokatu zuten Laukizen; 35 kilometroko erlojupekoa, taldekoa. Cafes Baque-Conservas Campos taldeak hirugarren amaitu eta podiumera igotzea lortu zuen Caja Rural eta Naturgas Energia taldeen atzetik. Naturgas Energia taldeak

segundo biko aldea bakarrik atera zion Cafes Baque-Conservas Campo taldeari. Erlojupekoan parte hartu zuen zazpikoteko bat Paul Usabel atxondarra izan zen.

Lehendakari Txapelketa hurrengo proba apirilaren 13an izango dute, Amorebieta-Etxanon.

hitz



liburudenda

artekalea 14, durango 946 810 776

info@hitzliburudenda.com

Durangaldeko Baserritarren Elkarte



Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO

> **ATLETISMOA**

Sasoiak eta abileziak urrea eman diote Romerori Europako Txapelketan

400 metroko finalean bidea ixten zion frantziar bati aurrea hartzeko abilitadea izan zuen korrikalariak



Jose Luis Romero podiumaren erdian, urrezko domina jantzita.

> **JOSEBA DERTEANO**

Donostian jokatu den beteranoen Europako Txapelketan hainbat ordezkari izan ditu Durango Kirol Klubak, eta zortzi domina ekarri dituzte bueltan, horietako hiru urrezkoak. Urrezko domina bat 400 metroko finalean (65 urtera arteko kategorian) irabazi

Floren Martinek brontzeko hiru domina jantzi zituen Donostian, 400, 800 eta 1.500 metrotan

zuen Jose Luis Romerok. Frantziar bik (Debonnaire eta Allenbach) gaitz ipini zioten garai-pena, ez erritmo bizia markatu zutelako bakarrik, baita bidea birritan itzi ziotelako ere. Ondorioz, azkenengo esprinter arte, frantziar biei orpoz orpo jarraitzea erabaki zuen. Azkenengo zu-

zengunean, oster, eraso jo eta erraz nagusitu zen. Bere jarduna oztopatu ez balute “askoz denbora hobe” egin zezakeela uste du Romerok, baina “markak beste egun batean ere egin daitezke, gaur helmugako postua zen garrantzitsua eta, alde horretatik, gauzak ezin hobeto irten zaizkit”.

Erreleboetako lasterketan ere urrezko domina irabazi zuen Romerok. Txapelketako bere jarduna zilarrezko beste domina batekin borobildu zuen, 200 metrotan. Durangarren urrezko hiruga-

Ana Saizek eta Begoña Martinezek borobildu zuten Durango Kirol Klubaren jarduna Anoetan

urren domina Ana Saizek esku-ratu zuen, honek ere erreleboko proban.

Begoña Martinezek zilarra lortu zuen pentatloian. Orain hiru aste Espainiako Txapelketa irabazia zuen modalitate horretan. Pisu jaurtiketan eta altura jauzian huts txiki batzuk egin zituen, eta horiengatik aldendu zen urretik. Hala ere, zilarra lortzea emaitza bikaina da.

Azkenik, Floren Martinek (80 urteko modalitatean) hiru brontze jantzi zituen 400, 800 eta 1.500 metrotan.

> **FUTBOLA**



Amorebieta eta Herrera kanpuseko gaztetxoekin, Iurretako futbol zelaian.

Herrerak eta Amorebietak futbol kanpusa bisitatu dute

Athletic Clubeko jokalariek Iurretan izan dira

Gertasport klubak asteon Iurretan antolatu duen futbol kanpusari gaur eman diote amaiera. Martitzenean, Ander Herrera eta Fernando Amorebieta jokalariek etorri ziren Iurretara. Kanpusean batutako 80 gazte-

txoek “oso pozik eta apur bat lotsatuta” hartu zuten jokalarien bisita, Mikel Aranguren antolatzailerako baten arabera. Lotsak, hala ere, ez zien eragotzi beren idoloekin argazkiak ateratzea.

> **JUDO**

Frantziatik 12 dominagaz bueltatu dira judoka gazteak

Konarek eta Vivancok urrezko bana irabazi dute

Durangoko Judo Klubeko gazteek Frantziako Saint Aubin du Medoc herrian (Bordeletik gertu) jokatu zen judo txapelketan parte hartu zuten orain asteburu bi, eta 12 dominagaz bueltatu ziren etxera.

Nesketan Deniba Konarek eta Eider Vivancok, eta, mutiletan Aitor de la Torrek, Aimar Aiarzaguenak eta Ander Iturbek lortu zituzten urrezko dominak. Vivancok iazko urrea berritu zuen.



Deniba Konare ezkerretik bigarrena, urrezko domina jantzita.

AGENDA

> **FUTBOLA**

OHOREZKO MAILA

Elorrio - Ugeraga
· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

LEHENENGO ERREGIONALA

Abadiño - Umore Ona
· Zapatuan, 17:00etan, Astolan

HIRUGARREN ERREGIONALA

Zaldia B - Larramendi ikastola
· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian

Iurretako B - Mungia B
· Domekan, 11:00etan, Larrakozelain

> **SASKIBALOA**

LEHENENGO MAILA (gizonak)

Tabirako Baque - Atletico San Sebastian
· Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian

LEHENENGO MAILA (emakumeak)

Tabirako Baque - Erroibide Irun
· Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian

> **PILOTA**

SAN PRUDENTZIO TXAPELKETA

Gazteak lau 1/erdian:

- Otadui-Etxebarria
- Olaizola-Diez
- Zubiria-Zubikarai
- Mendia-Bereinkua
- Barikuan, 21:00etan, Traña-Matienako pilotalekuan

Kadeteak binaka:

- Miranda-Odrizola / Inoriza-Lekunberri
- Gonzalez-Iparragirre / Gisasola-Etxebarria
- Aldekoa-Azpitarre / Bellido-Ugarte

Seniorrak lau 1/erdian:

- Altzelai-Larrañaga / Vidal-Amantegi
- Zapatuan, 16:30ean, Traña-Matienako pilotalekuan

Kadeteak binaka:

- Urizar-Arrizabalaga / Moron-Garate

Promesak binaka:

- Ziarrusta-Etxebarria / Berastegi-Urretxu
- Domekan, 11:00etan, Zelaletako pilotalekuan

Kadeteak binaka:

- Oiarbide-Aizpuru / Kortazar-Muruaga
- Arrue-Usandizaga / Fernandez-Garcia

- Lizundia-Lejara / Zapiko-Ansotegi

Promesak binaka:

- Alustiza-San Sebastian / Albizu-Pujana
- Domekan, 16:30ean, Traña-Matienako pilotalekuan

> **ERRUGBIA**

EUSKAL LIGA

Elorrio Parra Taberna - Arrasate
· Zapatuan, 17:30ean, Elorrioko errugbi zelaian

➤ Aisialdia

> GAZTE GARA GAZTE!

“Txapelketen ostean, ikasleak zientziara hurreratzeko pizgarri lez erabili gura dugu robota”



“

Txapelketara joan aurreko egun biak muntaketan eman genituen”

“Hiru dimentsioko diseinua ere eroan genuen, eta asko gustatu zitzaien”

“Amerikarrak dira faborito Munduko Txapelketan; zortzi urteko abantaila dute euren alde”

Ezkerretik eskumara: Endika Gandarias, Kepa Barrutieta, Bingen Zearreta eta Iker Salterain.

> JOSEBA DERTEANO

Mondragon Unibertsitateko Robotek taldeakdiseinatu-tako robotak Europako FTC (First Tech Challenge) Txapelketa irabazi zuen martxoan, Tarragonan. Hamabi laguneko taldetik lau Durangaldekoak dira: Iker Salterain programatzailea (23 urte, Abadiño), Bingen Zearreta diseinatzailea (23 urte, Zornotza), Kepa Barrutieta diseinatzailea (19 urte, Elorrio) eta Endika Gandarias maisua eta aholkulari-laguntzailea (32 urte, Durango). Ikasle denak heziketa ziklokoak dira.

Berrikuntzari, besteak baino pauso bat aurrerago joateari, garrantzi handia ematen zaio lehia teknologikoan. Zuek zer irizpide hartu zenituzten?

Bingen Zearreta: Txapelketak hiru fase zituen; gidatze autonomoaren eta eskuzko gidatzearen bidez uztaiak bere tokian sartzea, eta beste robot bat altxatzea. Beraz, robotak hainbat

ezaugarri bete behar zituen. Batetik, gidatzeko ahalik eta errazena izan behar zuen. Hasierako prototipoari gurpilak ipini genizkion, baina laban egiten zuen eta ez zen azkarra. Horregatik, beldar-ibilgailuen moduko gurpilak ipini genituen.

Beste robot bat ere altxatu behar zuela ikusita, egitura sendoa beharko genuela erabaki genuen. Txaxis gogorra du eta pieza asko. 700 pieza baditu, gutxienez. Txapelketara joan aurreko egun biak muntaketan eman genituen; 39 ordu segidan, lorik egin barik.

Iker Salterain: Argi infragorridun sistema autonomoa probatu barik joan ginen. Eskuzkoan ere asko probatu barik geunden. Tarragonan hartuta genuen etxean probak egin eta egin ibili ginen.

Horiek horrela, zelan zeuden animoak bezperan?

B.Z.: Aipatutakoa gutxi balitz bezala, diseinu huts batengatik motor jasotzailea erre egin zitzaigun. Eta sistema horixe

zen gure indargunea! Azkenean konpondu genuen. Txapelketa izango zen lekura heldu eta beste robotak ikusitakoan animatu egin ginen. Aukerak izango genituela pentsatu genuen.

Endika Gandarias: Estrategiak ere funtzionatu zuen.

I.S.: Bai, azkenak ailegatu ginen eta robota kaxa batean gordeta generaman, eta hantxe utzi genuen zabaldu barik. Ikusmina eragin genuen. Kaxa irekitzean, jende asko hurreratu zen zer robotegaz gentozen ikusteko.

Probak hasi aurretik, zuen proiektua epaimahai bati azaldu zenioten. Zelan moldatu zineten produktua ‘saltzen’?

Kepa Barrutieta: Gelara sartu aurretik nerbioso geunden. Sartu eta gazteak zirela ikusita, apur bat lasaitu ginen. Ondoren, gure azalpanek benetako interesa sorrarazten ziela ikusita, zelan esan, gora etorri ginen. **B.Z.:** Hiru dimentsioko diseinua ere eroan genuen ikusi zezaten. Askok gustatu zitzaien.

E.G.: Gehienek honako prozesu

hau jarraitzen zuten: diseinua burutik paperera eroan eta handik robota egiten hasi. Guk paperekoa hiru dimentsioko irudira eroan genuen fabrikatzen hasi aurretik. Bide horrek denbora gehiago eskatzen du, baina arazoak lehenago detektatzen dira. Luzera, abantaila da.

Azalpenen ondoren, probak etorri ziren.

I.S.: Zapatuan, klasifikazio saioak egin ziren. Kataluniako eta Errusiako talde bana sailkatu ziren lehenengo postu bietan. Gu seigarren sailkatu ginen. Probak bikoteka izaten dira, eta aurrenekoek taldeak aukeratzeko eskubidea zuten. Kataluniarrak errusiarrei proposatu zieten aliantza, baina errusiarrek ezetz erantzun zieten, gurago zutela gugaz aritu.

Aliantzak bere fruituak eman zituen, eta txapelketa irabazi zenuten. Sinisten zenuten?

B.Z.: Itzela izan zen.

I.S.: Ni konturatu ere ez nintzen egin. Azkenengo probak hiru txanda zituen. Hirugarrena jokatzeko genbiltzan bitartean, pantaila batean bigarren txandako puntuaketa begira nengoela, denak zarataka hasi ziren. Txapeldunak ginen! Ezin genuen sinistu. Hasieran izan

genituen arazo denekin... Errusiarrak ere oso onak ziren, dena esan beharra dago.

Apirilaren 24tik 27ra munduko txapelketan parte hartuko duzue, San Louisen (Missouri, AEB). Hara begira, zelan hobetuko duzue robota?

K.B.: Sistema autonomoa hobetu gura dugu. Orain, robotak aluminiozko arrapala dauka, eta pisu handia duenez, karbonozko bat egitea pentsatu dugu.

Zer esperantzarekin zoazte?

I.S.: Irabaztera goaz.

B.Z.: Ikusi egin beharko da zelan dabilzan amerikarrak.

E.G.: Eurak dira faborito. Txapelketa han sortutakoa da, eta zortzi urteko abantaila dute euren alde.

Txapelketa amaitzean, zer gertatuko da robotagaz?

E.G.: Ikasketa teknikoak egitera gero eta jende gutxiago animatzen dela ikusten dugu. Horregatik, ikasleak zientziara eta teknologiarantz hurreratzeko pizgarri moduan erabiliko dugu robota. Dagoeneko ipini gara hartu-emanetan Innobasquekin (Berrikuntzaren Euskal Agentzia), eurek antolatzen dituzten ekitaldietan erakustaldietarako edo erabili dezaten.



anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrak. Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com-en eta jarri zure iragarkia (pape-rean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Salgai edo alokai-ruan probalekuari; 3 logela, 3 balkoi, sukalde-jantokia, egongela handi bat eta gan-bara. Tel.: 615-71 12 40.

Abadiño. Matienan. Guztiz berritzatuta eta alitzariz jan-tzia. 3 logela, igogailua. Eguz-kitsua. 199.000 euro. Tel.: 688-86 18 78.

Abadiño. Salgai/alokairuan Muntzaratzen. Sukalde-egongela, 3 logela, bainugela eta komun, balkoi handia. Garajea eta ganbara. Tel.: 94-681 68 91.

Berriz. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Tel.: 647-77 73 92.

Durango. Erdigunean. 2 lo-gela, sukalde-egongela. Tras-telekua. 63 m². Erreforme-kin. Kanpora ematen du. 130.000 euro. 695-70 24 61.

Elorrio. Estreinu gabe ko etxe berria. 2 bainugela, 3 lo-gela, sukalde ekipatua eta 8 m²-ko trastelekua. 210.000 euro. Tel.: 634-45 72 01.

Iurreta. Arriaundin. 66.000 euro. 685-72 80 42.

Iurreta. Maspen, 3 logelako pisua salgai. 633-23 38 48.

Mallabia. Pisu eguzkitsua, 3 logela haundi, 2 komun, te-rraza, sukaldea eta egongela. 110 m² azalera eraikitua. Tel.: 695 77 31 41

ERRENTAN EMAN

Durango. Landako etorbi-dean, logelak alokagai. Tel.: 607-68 64 02.

Durango. Pisu alokagai. 2 logela, 2 komun eta 90 m²-ko terraza. Oso eguzkitsua. Tel.: 637-41 64 38.

Elorrio. Estreinu gabe. 2 bainu, 3 logela, sukalde eki-patua eta trastelekua. 650 euro. Tel.: 634-45 72 01.

ERRENTAN HARTU

Iurreta. Baserria alokatu edo erosio genduke, lur saille-kin. Iurretan. 647-44 40 57.

Durungaldea. Pisu txikia alokatuko nuke. 500 euro in-guru ordaintzeko prest. Tel.: 665-70 34 08.

OPORRETAKO ETXEA
Bastida. Saldu edo egune-tarako alokatzen da. Erdialde-an. 106 m². 3 logela, 2 bainu, sukaldea eta saloia. Altitzar-uekin. 8-10 pertsona. 65 euro eguneko, pisu osoa. Tel.: 600 463 276

Santo domingo de la cal-zada. Pisu berria alokagai herri erdian. Ezkaraitik hurbil. 2-4 pertsona. 657 772 613

Bastida. Torre - otxandi ur-banizazio pribatuan. Igerile-

kua eta saskibaloi pista. 2 lo-gela, bainugela, sukaldea eta egongela, guztiz apainduta. Ezkaraitik hurbil. Urte osoan eskuragarri. 620629245

PISUA KONPARTITU

PISUKIDE BILA

Abadiño. Logela bat aloka-gai Muntzaratz auzoan. Ko-mun pribatua. Oso merke. Tel.: 653-71 24 67.

Abadiño. Muntzaratzen lo-gela bat alokatzen da. Neska euskalduna bada, nahiago. Tel.: 676-98 33 06.

Berriz. Logela bat alokagai. Erdi-erdian, tren geltokitik eta autobus paradiatik minutu batera. Tel.: 615-75 21 36.

Durango. Logela bat aloka-gai, lbaizabal auzoan. Komun pribatuarekin. 652-86 57 80. Tel.: 647-77 73 92.

GARAJEAK

SALDU

Durango. Auto birako gara-je-plaza itxia salgai Montevi-deon. Tel.: 670-80 92 25.

Elorrio. Berrio-otxo kalean garaje itxia saltzen da. Tel.: 658-75 92 64.

Elorrio. Berrio-Otxoa kale-an, garaje itxia salgai. 17.000 euro. Tel.: 634-45 72 01.

Elorrio. Garaje itxia salgai erdialdean. 660-45 87 56.

Teknologia
Bidali zure ordenagailua peru eta boliviara. Honda-tuta baduzu, nik jaso, kon-pondu eta Kainaberaren bi-tartez bialduko dugu. Tel.: 655-71 76 66.

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

OSTALARITZA

Durungaldea. Neska gaz-tea denda eta tabernatan lan egiteko prest. 600-66 64 17.

Durungaldea. Zaintzan, garbiketan edo sukaldari la-guntzaile lez aritzeko lan bila. Tel.: 631-03 48 12.

ETXETOKO LANAK

Durungaldea. Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbi-ke-tan lan bila. 689-43 64 54.

Durungaldea. Nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko, sukaldari laguntzai-le... Tel.: 686-19 00 24.

